

bidegileak



Gotzon Aulestia (1940-2003)

Egilea:

GORKA AULESTIA

Bizitzako zertzelada batzuk

Gotzon Aulestia Txakartegi Ondarroan jaio zen 1940ko maiatzaren 27an eta sei anai-arrebetan gazteena izan zen. Beraz, frankismoaren egunsentian sortu eta haren diktadurapean hazia eta hezia izan zen. Ez zuen ezagutu bere aita Anjel arraunlari (1926an txapeldun Donostiako badian), arrantzaleta eta lemazainaren espetxeko (1937) egun latzik, baina bai geroago torturapean basaki jasandako haren zaurien ondorioak. Hala ere, inoiz ez genuen sumatu G. Aulestiaren bihotzean are-rioenganako gorrotorik edo ezinikusi-



Gotzon Aulestia Txakartegi (1940-2003)

rik. Bere barrenean beti gorde izan zituen indar eta trinkotasun sendoak baina, baita, onberatasuna eta haurren nolanahiko xalotasuna ere. 1951n Martuteneko Aita Agustin-darren ikastetxean sartu zen (1951-1953); geroago Donostiako Santa Rita Ikastetxera igaro zen Humanitate eta Filosofia ikasketak bukatzera (1953-1958). Urte luzez Gipuzkoako hiriburuari loturik bizi izan zen. Nobiziatura eta Teologia ikasketak (1959-1963) Monachil-en (Granada) burutu zituen.



Nasa kalea. Gotzon jaio zen karrika eta etxea (gorriz)



Gotzon, sei hilabeteko haurra

Musika arloan, neurri handi batean, autodidakta izan zen eta hamaika urte zituela ezohiko zaletasuna erakutsi zuen. Hamabost urte baino ez zituela, bere lehengo bi gabon abesti konposatu zituen, eta hemezortzirekin zenbait motete eta gabon kanta. Grana-dako «Victoria Eugenia» Kontserbatorioan solfeo ikasketak, hiru piano ikasturte eta bi harmonia ikasturte amaitu ondoren Euskal Herrira itzuli zen. 1963ko abenduaren 21ean Donostiako Seminarioan apaiztu eta 29an

bere lehendabiziko meza Ondarroan eman zuen. Donostian Aita Agustindarren ikastetxean latina, grekoa eta filosofia irakatsi ziotuen. Horrez gain, komentuko abesbatzaren zuzendaria eta organojolea ere izan zen. Aldi berean, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan F. Eskuderorekin Harmonia, Kontrapuntu, Fuga eta Konposizio ikasketak, eta A. Cabanasekin piano ikasketak egin zituen, karrera bukaerako bi lehen sari lortuz: Harmonia (1964) eta Fuga (1966) sariak. Donostian Konposizio karrera bukatu ondoren eta ikasketak hobetzeko asmoz, 1967an Parisera joan zen, hango kontserbatorioko irakasle ospetsuaren (Olivier Messiaen) gidaritzapean lan egitera. Orduko obrarik nabarmenena *Événement à Gernika* (Gernikan gertatu zen) (1967) dugu.

Bere bizitzako une zoriontsu batean, G. Aulestiak musika arazoak bertan behera utzi eta erlijio bokazioari lehentasuna eman zion. Horren ondorioz, Amazonas ibaiaren Purus ibaiadarraren ondoko Canutamara, misiolari joan zen. Amazoniako gaixotasun larri baten ondorioz Manaos hirira eraman behar izan zuten. 1975ean bost urteko kontratua bukatu eta gero, Euskal Herrira itzuli zen.

Hemen, agustindar fraide izatea utzi ondoren, parrokiako apaiz izatera igaro zen. Orduko Donostiako apezpikuak, J.M. Setien jaunak, apaiz lagunkide bezala bidali zuen, lehenengo Urnietako parrokiara (1978-1980) eta gero Aieteko «Gurutziaga» elizara (1980-1982).

Donostiako gotzainak, G. Aulestiaren prestakuntza musikalaz jabeturik, hiriburuko Goi Mailako Kontserbatorioko oposizioetan parte hartzera bultzatu zuen, eta 1983an harmoniako laguntzaile plaza lortu zuen. Urte horretan «Artzain Ona» Katedraleko organojole, Ategorrietako Ama Salestarren kape-rau eta Euskal Herriko Musika Sakroaren Elizbarrutiarteko Batzordeko kide izendatu zuten. Lanpostuotan hogeitaz urtez (1983-2003),

hil arte, iraun zuen. Azkenik, komentu horretan bere obra handiak konposatzeko toki, beta eta isiltasun ezin hobeak aurkitu zituen: *Hitzmitz* (1984), *Urgazak* (1985), *Haundiesten du* (1986), *NHI* (1989-1990), *Antzaldatz* (1990), *Harizko Laukotea* (1992), *Bidez-Bide* (1996), *Racconto* (1997), *Orkestrarako Kontzertua* (1999), *Pasodoble «Luis Oloriz»* (2000), *Orkestrarako Fantasia* (2001), *Arantzazu: harkaitz, elorri, lore* (2003) eta nola ez, *Concierto para piano y Orquesta* (amaitu barik baina oso aurreratuta aurkitzen dena).



Meza Berria, Ondarroan (1963)



Gotzon Purus ibaian (Amazonas, Brasil 1970-75)



Técnicas compositivas del siglo xx (1998)



Donostiako Kontserbatorioko irakasle (1983-2003)

Esparru ezberdinean baina zerrenda berean koka dezakegu 687 orrialdeko liburua: *Técnicas compositivas del siglo xx* (I. Tomoa) (1998) eta 371 orrialde dituen liburu honen bigarren alea aldi berean, euskal musikagile batzuen (C. Bernaola, L. de Pablo, F. Ibarrondo, J. Torre, R. Lazkano, G. Erko-reka etab.) lanak ere bigarren alean aztertze-ko asmoa behin eta berriro azaltzen zuen. Bi liburu horien bitartez, G. Aulestiak erakutsi zigun sortzailez gain musika garaikidearen teoriko bikaina ere izan zela, haustura tonaletik hasita gaurko estetiketaraino: atonalitatea, politonalitatea, serialismoa, polirritmia, estrukturalismoa, dodekafonia, eta musika espaziala elektronikoa eta informatikoa gaindituz. Liburu hau kontserbatorio askotako ikasle eta irakasleek ezinbesteko

erreferentziatzat hartzen dute gaur egun musika garaikidearen alorrean. Lau urte behar izan zituen lehen alean XX. mendeko konposizio teknikak aztertze-ko.

G. Aulestia 2003ko martxoaren 14an Ategorrietako (Donostia) Ama Salestarren komentuko mintzategian bihotzekoak jota zendu zen, eta biharamunean bere jaioterriko hilerrian ehortzia, Antiguako Andra Mari baselizararen ondoan. Bere bizitzako udazkenean, euskal opera bat idazteko asmoa sarritan agertzen zuen, baina amets hori bete gabe oraindik gazte joan zitzaigun. Hala ere, bere ekoizpen musikalak argi adierazten du XX. mendeko bigarren zatiko euskal musikagilerik nabarmenetako bat izan zela, organo-jole, abesbatza zuzendari, musika irakasle

eta, batez ere, konpositore gisa lan eskerga eta bikaina egin zuelako. Berarengandik oraindik onena espero genuenean, heriotzak eraman zuen. Galera mingarria, benetan, etxeko, lagun, euskal kultura eta musika garaikidearentzat, sekulako harrikada jaso baitzuten, G.Aulestiaren bat-bateko heriotzarekin.

Bere joeraz sentibera, kementsua, baikorra, euskaldun peto-petoa, langile sutsu eta nekaezina izan zen; utopia egia bihurtzen ahalegintzen zen ameslaria eta, bere alorrean, perfekziozalea.



Ategorrietako Komentuko kaperau (1983-2003)

Lehendabiziko euskal lanak

Bateletan (1962). Sei ahots mistorentzat eta soprano eta tenorearentzako soloak ditu. *Ardu, ardu* (1965). Bi ahotsetarako abesbatza-
rentzat egindako kalejira da, piano eta haize instrumentuz hornitua. «*Artzai Ona*» *Meza* (1965). Bere adiskide Andrés Herrerearekin batera 1965ean konposatutako eta Donostiako elizbarrutiko lehiaketan onartutako meza da. Herri eta koruarentzat eginiko obra da, organoaren akonpainamendua duela. *Eskari samurra* (1967), «*Saustan*» izenaz ezagunagoa den abesbatzentzako idatzitako kantua honek lau ahots misto eta bakarlaria (sopranoa) daramatza, pianoak eta ganbara



Meza «Artzai Ona» (1965)



Amets egin dot (1966)



Bilboko Koliseo Albia (1967)
(B.Lertxundi, G.Aulestia, L.Iriondo etab.)

orkestrak lagunduta. *Mundu baltzean* (1966), *Arre orru* (1966), *Bost kanpai* (1966) eta *Nik ez dakit* (1966); solistentzat eta ganbara orkestrarentzat eginiko lanak.

Amets egin dot (1966). Lehen denboraldiko ekoizpen musikalean ahots bakarreko abesti eder hau nabarmentzen da, euskal kutsuko melodia eta orkestraren erabilbideagatik. Bilboko Coliseo Albia antzokian III. Euskal Abes-tien Jaialdian lehenengo saria lortu zuen 1967-III-12an. Une hartan Bilboko musika kritikalaria eta geroago musikagile ospetsua izan zen Anton Larrauri jaunak idatzi zuena-ren arabera: «onena ezpairik gabe» *El Correo Español* (1967-III-13).

Événement à Gernika (*Gernikan gertatu zen*, 1967). Hogeita zazpi urteko ondarrutar musikagile gazteak Parisen pianorako egindako obra da eta egilearen arabera, «Gernikako bonbardaketaren gertaera historikoari bu-ruzko zertzelada adierazten du».

Egia bat esateagatik (1968). 1968ko udan Ma-drileko Santa Mónica Parrokian organojole jarri zuten eta bere frantziar maisu handia-ren oroimenez, «Olivier Messiaen» abesba-tza sortu eta zuzendu zuen. Horrez gain, Clemente Terni irakasleak Santiago de Com-postelan zuzendutako konposizio garaikide ikastaroetan parte hartu zuen. Ordukoa dugu *Egia bat esateagatik*, G. Arestiren *Harri eta Herri* (1964) liburuan jasotako letrarekin osatua (*Obra Guztiak, Poemak I* : 492).

G. Aulestiari musikagile apurtzaile, zail eta berritzaile izatea sarri egotzi izan zaio eta obra honetan ere berrikuntzak nabariak dira: pianoaren doinuaren eta sopranoaren erosta tragikoaren arteko kontrakotasunak (tonoak eta semitonoak); biolontxelo eta sopranoaren arteko elkarrizketa hunkigarria; gizakien oinazeari emandako trataera satirikoa, saminez eta irriz betetako pasarte elegiakoa; azken hitzetan («inoiz, inola, inun ez naiz isilduko») darabilen erritmo bizi eta tragikoa, etab.

Sopranoa (María Falcó), errezitatzaileria (Jose M.^a Arbelaiz), lau eskutarako pianoa (Juan

Pedrosa...), harpa, biolontxelo eta perkusio taldearentzat eginda dago, eta 1984ko maiatzaren 18an Errenteriako Musikasteko estreinaldian txalo beroak jaso zituen.

Egi Bidean (1970). Madrilen egin zuen egotaldian (1968-1970), G. Aulestiak *Cantar es amar* (1970), hamalau abestik osatutako diskoa, lau ahots mistoetarako grabatu zuen. Hauetako lau abestirekin *Egi Bidean* diskoa egin zuen Ondarroako Kresala abesbatzak lagunduta: «Kristau urak», «Mundu garratza», «Gezurra» eta «Goratzeta». Euskal letrahauen egilea A. Zubikarai da.



Egia bat esateagatik (1968)



Egi Bidean (1970)

Artista herrikoia

otzon Aulestiaren bizitzako jomugak hauek izan ziren: Jainkoa, familia, adiskidetasuna, lan profesionala, apaiz zerbitzua, Euskal Herria eta euskara. Horrez gain euskal kulturgintza lanean ari ziren elkarteekin, batez ere musika esparruan, harreman sendoak izan zituen. J.M. Iparragirrereren esaldiari jarraituz («Eman ta zabal zazu munduan frutua»), bere bizitza arriskuan jarri zuen Brasilen. Baina unibertsaltasun horrek ez zion galarazi bere aberriarekiko eta honen euskal kulturarekiko agertzen zuen maitasuna. Urnietako parrokian zegoen bitartean (1978-1980), Sevillako Katedral Metropolitarrereko



Atako Bandan (1976)

Kapera Maisu postua eskaini zioten, baina dei horri uko egin ondoren, Euskal Herrian gelditzea erabaki zuen. G. Aulestiak zinez uste zuen euskal musika konposatzeko ingururik egokiena, eta sustraiak errotzeko lurrik hoberena euskal lurra zela. Arazo sozial, politiko eta, batez ere, kulturaleri inoiz ez zien muzin egin.

Atako Bandan (1975). Ondarroan 1973ko neguan gertatu ziren bi heriotza latzen berri



Ondarroa (1962)

ematen zaigu. Hots, aita batek bere hamasei urteko semea itsasoaren olatu artean urperatzen ikusi zuen. Hilabete geroago, seme batek bere aita itsasoak nola irensten duen ikusiko du. Bi gertakizun negargarri hauetaz baliatuz, X. Letek poema bat idatzi zuen, «Bizitza arriskatzen dugu biziagatik», pertsonaia batzuen samina eta kexak azalduz (semea, aita, alarguna, herri arrantzalea, itsasoa, jabea eta lemazaina). Poema zirraragarri honek ondarrutar konposatzaileari poema sinfoniko eder hau sorrarazi zion. Poema sinfoniko hau lau ahots mistoko korurako eta kamera orkestrarako eginda dago. Izen berea daraman diskoak (LP) beste lau abesti ere badaramatza: *Bertsolaria* (1976), *Zuzentza* (1976, Juan Arantzamendiren hitzak), *Euskal Herri Berria* (1977, X. Amuriza) eta *Amaren Kezka* (1976, A. Zubikarai). Baita 1976an *Nor da pekatari*, 4 a.m. eta solistentzat idatzi zuen eta «Masas Corales de Tolosa»-k argitaratua izan zen.

Itxaso Lapurra (1976). Berrogeita zazpi orrialdeko obra luze eta zail hau sei ahots misto eta bakarlariantzako abestia da, euskal tresna autoktonoen akonpainamendua duela (txistu lehena eta bigarrena, silbotea, danbolina, atabala eta txalaparta) 1976an «Abesbatzentzako Bizkaia Lehiaketa»n, Bilbon, bigarren saria irabazi zuen. Agustin Zubikarai idazlearen letra honek bi zati ditu: herri festa, erromeria estropadak irabazi ondoren, eta bost emakume alargunen erosta itsasoa-

ren aurka. Euskal egunkariek lan honen zailtasuna eta handitasuna azpimarratu zuten, adibidez, *Gara* (2004-V-30): «Sorprenidente estreno de *Itxaso Lapurra*»... Estrenaldia Erreenteriako *Musikasten* (2004-V-28) izan zen.


Herri zahar hau (1977). Hamar kantak osatzen dute disko (LP) hau eta kamera orkestrarentzat eta solistentzat eginda dago. Autorearen helburu nagusia euskal kantutegi herrikoia gaurkotzea zen, doinu eta, batez ere, erritmo berri eta biziak erabiliz. Horietako abesti batez, *Itxas kateak*, Ondarroan «Arrantzale Abestien I. Lehiaketa»n bigarren saria lortu zuen. Abesti hauen izenburuek, Franco hil ondoren, Euskal Herrian sortu zen giroa gogorazten digute: «Aleluia Euskal Herria.» (heldu da gure eguna... denok elkartuta egingo dugu gure aberria). «Eta makina egin zen haragi.» (aurrera langile euskalduna lanaren jabea... apur dezagun denok makina hori). «Euskaldun bizi nahi dut.» (euskaldun sentitu naiz nire baitan). «Euskal Unibertsitatea.» (ikasi gura dugu... herria jaso eta hezi). «Herri zahar hau.» (preso dugun herri zahar hau libre ikustearren...). «Berrehun mila ez.»

Euskal Kondaira (1980). Euskal Herriko historiako pasarterik garrantzitsuenak jasotzen dituen obra luze hau konposatu zuen; letra hauen autoreak X. Lete eta X. Amuriza dira: 1) Aintzina, (kobak, cromlech); 2) Erromatarrak; 3) Visigodoak, Francoak, Arabeak; 4) Orreaga,




Itxaso Lapurra (1976)

Carlomagno; 5) Sancho III Nagusia, Nafarroako Errege; 6) Nafarroaren eboluzioa (Navas de Tolosa, Arrano Beltza); 7) Beotibarko gatazka; 8) Ahaide Nagusiak (Banderizuen borrokak, Oñaztarrak eta Ganboatarrak); 9) Nafarroaren suntsitzea, 1512, Gaztela garaile; 10) 1521, Amaiurko Gaztelua; 11) Donapaleuko azken kortea, 1564, Joana Albret, J. Leizarraga; 12) Matalas, 1661; 13) Austriak eta Borboiak, 1705; 14) Euskal Foruak; 15) Frantziako Iraultzaren ondorioak; 16) Lehen Karlistada (1833-1839), (Muñagorri, Bergarako besarkada); 17) Gernika; 18) Burgosko epaiketa; 19) Amaiera.



Herri zahar hau (1977)



Autodeterminatzen (1990)

Laburbilduz, obra luze honek ahots eta kamera orkestrarako musika-guneak daramatza. Bere jatorrizko bertsioan lan hau oso aurreratuta dago, baina zoritxarrez amaiera eman gabe gelditu zen.

Autodeterminatzen (1990). Gaur egun ere Euskal Herrian pil-pilean darabilgun gai politiko bati oratu zion: autodeterminazioari. Sei orrialdeko obra labur honek X. Amurizaren hitzak ditu eta piano, orkestra, koru eta herriarentzat eginda dago. G. Aulestiak

bere bizitza osoan, kristau eta euskaldun bezala, aukera bat egin zuen eta bere garaiko Euskal Herriaren premiei erantzuten saiatu zen, nahiz eta azken urteetan obra sinfonikoetan murgildurik lanean jarraitu.

Euskal Herriak autodeterminatzeko eskubidea.

Herri txikia izan arren,
haundiei gaizki iruditzen arren,
kostako zaiguna kosta arren,
arren, arren, arren,
gurea da eskubidea erabiltzeko egina.



Sei anai-arrebak: Amaia, Gorka, Lorea, Kepa, Itziar, Gotzon

Musika erlijiosoa

Oso ugaria da G. Aulestiak burutu zuen lana. Jabetza erregistroan (SGAE: Sociedad General de Autores y Editores; Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia) ofizialki 86 partitura agertzen dira baina beste obra asko zerrenda horretatik kanpo geratu ziren. Egilearen iritziz, arlo erlijiosoan soilik, laurehun bat lan konposatu zituen. Euskal Herriko elizetan, gaur egun abesten diren kantu asko bereak dira (ikus adibidez *Gora Jainkoa* aldizkaria). G. Aulestiaren musikaren barnean Jainkoaren eta kristau sinesmenaren aztarnak aurki ditzakegu zeren egilearen arabera: «Musika eta sinesmena bizitzako oinarriak ditut. Erabat betetzen naute». (Deia 1990-VIII-12).

Hona hemen atal honetako lanik aipagarrienak: *Aietetik kantari* (1982); *Haundiesten du* (1986), *NHI* (1990), *Bidez-bide* (1997) eta *Arantzazu: harkaitz, elorri, lore* (2003). Horrez gainera, beste zerrenda luze bat ere egin dezakegu: *Eliz Abestiak* (I) (Urnieta, 1979); *Eliz Abestiak* (II) (Aiete, 1982); *Aspaldian* (1987), Gabon abesti luze hau 4 ahots berdin eta bakarlarientzat eginda dago. *Ondarroa 1988* aldizkarian argitaratua izan zen. *Nire poztasuna* eta *Nire gaurko kanta* (1996), (Lisieuxko Teresaren gorazarrez, bere mendeurrenako egina (1897-1997); hitzak: Lisieuxko Teresarenak eta itzultzailea: Luis Baraiazarra; lau ahots mistoko koru eta herriarentzat, organoak lagunduta); *Merezi duzun aitorra* (1997),



Donostiako Artzai-Ona Katedraleko organujole (1983-2003)

(J.M. Setien jaunaren omenez, herriarentzat eta organorako egindako lana; hitzak Juan M.^a Lekuonarenak).

Gotzon Aulestiaren bizitzako bidegurutze larri batzuetan, J.M. Setien apezpikuaren aholkuak mesedegarri eta erabakigarriak izan zitzaizkion. Inolako zalantzarik gabe ager daiteke gaur, haren musika ez zela goi mailara helduko, laguntza hori lortu izan ez baldin balu. Halaber, agustindar fraideen komentuetan aurkitu ez zituen euskal kulturaz, askatasunaz eta malgutasunaz gozatu zen Donostiako gotzainaren agindupean. Beraz, ez da harritzekoa hainbeste miresten zuen elizgizona abesti eder honen bitartez omentzea.



Merezi duzun aitorta. J.M.Setien (1997)

Agur Maria (1998). Abesti hau sopranoarentzat, piano eta harizko orkestrarako eginda dago. *Gure Aita* (1999). Tenorearentzat eta pianorako egina izan zen. *Arantza artean* (2000), (Arantzazuko ereserkiari buruzko bariazioak 500. urtea ospatzeko eratutako Aita Frantziskotarren batzordearen eskariz); *Zeruko Erregina* (2000), (Lau ahotsetara eta organoaren laguntzarekin); *Hona hemen* (2000), (Hitzak: J.M^a Zunzunegi); *Maita eza-zue* (2000), (Hitzak: X. Basurko); *Hil da piztu* (2001), (Hitzak: P. Huizi); *Noiz etorriko zara?* (1979); *Jaunaren Aingeruak: Angelus* abestia herriarentzat eta organorako egina. *Gutziz ederra* (1979) (*Tota pulchra*; 4 a.m. koroa eta organoa); *Gugatik hil eta* (1979; 4 a.m. eta organoa); *Kristo bizi da bizi* (1979; 4 a.m. eta organoa); *Santu* (1981; herria, koroa eta organoa); *Alleluia* (4 a.m. koroa eta organoa), etab.

Aietetik Kantari (1982). Erlijiozko kantuen alorrean disko hau oso garrantzitsua da bere letren eta musika koralaren kalitateagatik. Hamalau abestiz osatutako bilduma da, lau/bost ahots ezberdinetarako organoak lagunduta. Abendutik Pentekostes bitarteko jai nagusietako gorazarreak, antifonak, erantzun-salmoak eta doinu herrikoiak aurki ditzakegu hamalau abestietan: «Zatoz Jauna!», eta «Ai, zeruak urratu»; «Hitza haragi egin zen» eta «Pozkario»; «Egile on» eta «Txasta ezazue»; «Agindu berri bat» eta «Jaunaren espiritua»; «Nere herri» eta «Oi gurutzear»;

«Kanta, lurbira» eta «Hilen artetik»; «Zatoz, bai, Gogo guren» eta «Zure arnasa».

Euskarazko urte liturgikoaren abesti bildumarako ekarpen onuragarria dakar eta euskal elizbarrutietan hutsune handi bat betetzen du.

Haundiesten du (1986). G. Aulestiaren sorkuntza musikalaren ibilbidea, hasiera batean eskola abertzalearen kutsu garbia duena, geroago aldatuz joan zen estetika aldetik. Kantata hau

hiru abesbatza eta ahots-laukote bakarlarientzat eginda dago. Euskal Herriko, Espainiako eta atzerriko musikagile eta kritikarien iritziek obra honen garrantzia goraipatu zuten.

Iritziak iritzi, eskertzekoa da benetan egilearen emaitza hau. Euskal Herrian ez da bakarra baina bai bakarretakoa, erlijio, gaurkotar, euskara eta teknika aldetik begiratuta lortzen duen arrakastagatik. Azkenik, hor daude baita obra luze honek koruentzat dituen zailtasunak ere.



Aietetik Kantari (1982)



Haundiesten du (1986)

NHI (1990). Hiru ahots-talderentzat eginiko obra zail eta ederra da; musika garaikidekoa eta hogei minutuko iraupena duena. Egileak bere 50. urtebetetzea lan hau sortzeaz ospatu zuen. *A capella* abesteko idatzita dago eta Gasteizko «Cluster Abesbatza»k 1990eko abuztuaren 21ean Donostiako Udaletxean lehen aldiz kantatu zuen Juan Jose Menaren zuzendaritzapean. Autorearen etorri literarioa Juan M.^a Lekuona poetaren *Muga Beroak* (1973) liburutik jasotako «Hondarrean idatzia» poema dugu.

Bidez Bide (1996). Donostiako «Artzain Ona» elizaren mendeurreneko ereserki hau, 4 ahots

mistoko koruarentzat, orkestra sinfoniko handirako eta organorako egin zuen, Katedraleko Mendeurreneko Batzordearen eskariz. Ereserki hau 1997ko uztailaren 30ean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Donostiako Orfeoia interpretatu zuten. Egileak musika garaikidearen eta izaera herrikoiairen arteko oreka bilatu zuen, halaber ereserkia otoitz eta hausnarketa gune bihurtzeko asmoz; hiru gogoeta islatu nahi izan zituenaldi berean: xalotasuna, samurtasuna eta konpromisoa.

Goi-argiz beteriko hitzen egilea, Pello Esnal idazlea dugu. Ondarrutar musikagileak sarri



NHI (1990)



Bidez bide (1996)

aitortzen zuen, poesiaren lehen bi lerro («Bidez bide, hona ekarri gaituzu, Jauna») irakurri bezain laster, ereserkiaren nolabaiteko azpiegitura aurreikusi zuela bere baitan.

Bidez bide,
hona ekarri gaituzu, Jauna,
Bidez bide,
zure mintzoa dugu bizi-poz
bidez bide,
zure biziak aseko gaitu,
bidez bide.

Zure mintzoa bizi-poz,
zure deia gidari,
zu izan zaitugu bide,
zu, Jauna, aintzindari.
Hona ekarri gaituzu
maitasun-ibiltari.
Zure hitza dugu indar,
zure bakea sari.

Arantzazu: harkaitz, elorri, lore (2003). Obra hau Donostiako 64. Musika Hamabostaldiaren enkargua izan zen. Organorako konposizioa da eta hiru zatitan (*Amets toki*, *Otoitz leku* eta *Pizkundera*) sailkatuta dago. Estreinaldia Donostiako Andra Mari Basilikan 2003ko abuztuaren 5ean ospatu zuten eta organoa J.M. Azkue oiartzuar musikari ospetsuak jo zuen. Honen iritziz *Arantzazu* obra zaila, oso modernoa, indar handikoa eta zehatz eginkoa da. G. Aulestiak, hil ondoren ere, ondo merezitako donostiarren txalo beroak lortu zituen obra honegatik eta, baita hiri honetan ia berrogei urtez egin zuen lan oparoagatik ere.

Azkenik esan beharreko gertakizun zirrargarria dugu: egilea, obra hau bukatu eta egun batzuk geroago, hil egin zela; beraz, G. Aulestiaren azken lana da.



Arantzazu (2003)

Musika Didaktikoa

Berrogei urteko frankismoaren ekaitz gogorraren ostean, euskaldun askoren ametsa euskara berreskuratzea izan zen eta ikastetxeetako haur erdaldu-nak euskalduntzea. Helburu hori lortzeko, *Erein* argitaldaria *Txalo pin txalo* metodoa kaleratu zuen euskara jolasez ikasteko, ipuin, abesti eta marrazkien bidez. Metodo berri honek ikaslearen-tzako gidaliburua, gurasoen liburutxoa eta kaseteak biltzen ditu. G. Aulestiak bigarren eta hirugarren liburuetarako 48 abesti konposatu zituen.



Txalo Pin Txalo 2 (1980)



Txalo Pin Txalo 3 (1982)

Txalo pin txalo II (1980). Ama hizkuntza gaztelania duten 4-6 urteko euskaldun haurren-tzat eginda dago. Umorez eta fantasiaz bete-riko A. Lertxundiren testuak, doinu gozoz eta erritmo biziz jantzi zituen ondarrutar musikagileak. Animalia ugarien artean (ipur-targi, barraskilo, zizare, etab.) «agure mutu» baten gabon-kanta polit bat ere entzun de-zakegu. Kasete honen 24 abestiek kamera

orkestraren akonpainamendua dute eta beraien interpreteak, Lurdes Iriondo, X. Lete eta A.Valverde dira.

Txalo pin txalo III (1982). Azpiegitura, helburu, abestien kopuru eta testu-musikaren egi-leak berdinak dira, baina oraingo honetan Erretereriako «Orereta» ikastolako haurrak ditugu abeslari. Zerrenda luze honetako abesti bat aukeratzekotan, «Gauza barregarria» hauta liteke, txistuaren erabilera eta eritmoaren bizitasunagatik.

G. Aulestiak haurrentzat egindako kantuen zerrenda, bai euskaraz eta bai gaztelaraz, oso luzea da. Aipa ditzagun, adibidez: «Txalo Jaunari», «Hau da Jaunak egindako eguna», «Zaude gurekin» eta batez ere *Jolastuko gara* (1980) hamar abestiko bilduma, ganbara orkestrak lagunduta eta Donostiako EDIGSAk grabatua baina gaurdaino argitaragabea. Hitzak Lurdes Iriondo abeslariarenak dira.


Era berean, aipagarriak dira baita gazteentzat egindako bi obra ere: *Bat Bakarra* (1988) eta *Uhinak kulunkari* (1988). Lehenengoa lau ahots berdinetarako egin da eta egilearen letra aberkoia darama: «Bat, bi hiru, lau dira bat. Zazpi dira, bost, sei, zazpi gara. Bakar bat gara...». Bigarrena hiru ahots berdinetarako egin da eta, L.M. Mujika dugu obra honen hitzen egilea. Bi lan hauek Gipuzkoako abesbatzen federazioak *Txio-Txioka* sortan argitaratu zituen.

Euskal literatura eta ondarrutarraren musika


G. Aulestiaren letradun obra gehienak euskaraz idatzita agertzen dira. Hitz hauen egi-leak, euskal poeta eta prosalari ospetsuen artean aurki ditzakegu, hala nola, A. Zubikarai, Orixe, J.M. Lekuona, X. Lete, X. Amuriza, G. Aresti, Anjel Lertxundi, Luis M. Mujika, P. Esnal, Lurdes Iriondo, J. Martin Apalategi, Luis Baraiazarra, etab.

Gaztarotik agertu zuen bizkaitar musikagileak euskara eta euskal literaturarekiko atxikimendua, baina zoritxarrez Urnietako parrokiara heldu arte (1978-1980) gai hauetan murgiltzeko abagunerik ez zuen izan. Garai hartan erositakoak ditugu G. Aulestiaren euskal liburutegian agertzen ziren obra batzuk: R.M. Azkue, Tx. Agirre, Orixe, Lizardi, J.M Lekuona, B. Gandiaga, G. Aresti, Txillardegi, X. Lete, X. Amuriza, etab. Ahozko literatura, bertsolaritza eta, batez ere, euskal pastoralen esparrua, oso interesgarria iruditzen zitzaion, musikagile baten ikuspegitik begirata. Are gehiago, 1977an, «Juan March Fundazio»ko beka baten bitartez, euskal pastoralen musika sakonki aztertzeke asmoa agertu zuen, baina zoritxarrez ez zuen laguntzarik lortu.

Bertsolaria (1976). Xalbador bertsolariaren heriotzak saminki hunkitu eta ukitu zuen gure musikagilearen bihotza. Abesti hau lau ahots mistoko korurako eta kamera orkes-



Bertsolaria (1976)



Egun batean (1985)

trarako eginda dago eta *Atako bandan* diskoan agertzen da. Kantuak J. Martin Apalategiren hitzak ditu eta Urepeleko bertsolariari eskainita dago. G. Aulestiak berak birpasatu zituen abesti honen hitzak eta musika 2000ko uztailaren 28an, lerro hauek erantsiz:

Odolaren mintzoari zabalik zaitugu beti adi,
Naturaren olerkari, izarren argiari zara
kantari,
euskararen amodioari koplari.

Egun batean (1985). Polirritmia eta politonalitatez horniturik agertzen zaigun obra hau lau ahots mistorentzat eta errezitatzailerentzat eginda dago. Hitz batzuk G. Arestiren *Harri eta Herri* liburuan aurki ditzakegu: «Egun batean / guztiok / izanen gara / zoriontsuak». (*Obra Guztiak*: 494). Bilbotar poetak hain maite izan zuen poesia sozialaren kutsua nabarmentzen da. Kantu honek 1986an Tolosa-ko konposizio lehiaketaren lehen saria irabazi zuen, Busto jaunaren lanarekin batera, *ex aequo*.

Nadin Nadilla (1989). Poesia labur eta bitxi hau J. M. Lekuonaren poesia sozialean koka genezake. Lan honek ez du azaltzen, agian, oiartzuar idazlearen beste poesia batzuen handitasun eta sakontasunik (adibidez: «Metretriz illa», «Porlandi» edo «Jainkoa il da») baina bai harribitxiaren edertasun eta politasuna.

Abesti hau lau ahots mistoko koruarentzat idatzita dago eta sopranoaren solo bat dara-

ma. G. Aulestiaren beste obra asko bezala, kantu eder hau ere umezurtz agertzen zai-gu, estreinatu gabe.

Racconto 2 (1997). Ordenagailu sintetizado-reko hotsez beteriko musika elektroakus-tikoak G. Aulestiaren arreta erakarri zuen. Berak Bartzelonan G. Brincic-en zuzendaritza-pean Phonos Laborategian 1987 eta 1988an egindako musika elektroakustikoko ikastaroetan parte hartu zuen. Arreta honen erakus-

garri, 1997an txistu eta silboterako obra espe-rimental hau egin zuen *Txistulari* aldizkariaren enkarguz, non argitaratua izan zen (1997-3, 191.zk: 5840-5863).

Konposizio honek J.M. Lekuonaren *Mimodra-mak eta Ikonoak* (1990) liburuko «*Racconto 2*» olerkia du etorria: «Kobazulora hurbildu zen neskatxa... / Marizulon barrendu zen gazte-ñoa,... / ilunak sareetan bahiturik zeukan / mitxeleta ezpatadantzari koloretia». (35 or.).



Nadin Nadilla (1989)



Racconto (1997)



Gotzon irribarretsu

Azken ondorioak


Azken argazki alaitsu honek ongi islatzen du G.Aulestiak askotan azaltzen zuen aurpegiera. Bere bizitzako ibilbidean poztasun ugari eta oztopo handi batzuk ere izan zituen. Baina une latz eta beheraldietan kristau sinismenean eta musikarako zuen zaletasunean oinarriturik, ekaitzei brankaz aurre egiten ikasi zuen gaztarotik, arrantzale baten seme on bati dagokion bezala. Lan profesionalak ematen duen bizi-poza izan zuen bere zutaberik



Gotzon Juanjo Mena lagunarekin

sendoenetariko bat eta, horren ondorioz, sarritan umoretsu, itxaropentsu eta irribarretsua agertzen zen. Gaztaroan euskal kulturaren alde egin zuen apustuari tinko eutsi zion beti, hil arte. Lanean hil zen eta lanak hil

zuen. Mila esker, Gotzon, zure ibilbide jori eta lan eskergagatik. Berak asko maite zuen zaraustar poetak idatzi zuen bezala: «Biotzean min dut, min etsia, negar ixilla darion mina... Agur... Egun Aundirarte!».



Bizitzaren azkenaldiko Gotzonen argazkia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Aulestia familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2380-4 (Lan osoarena) 84-457-2383-9
L.G.:	BI - 3289-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística